

## IPUI BERRIYAK.<sup>1</sup>

---

**(ON MANUEL GOROSTIDI JAUNA-RI)**

Euskaraz mintza gaitian  
munduan geran artian.

**Ama eta lau aizpak.**

Amak.—*Zér dakarzute onuntz  
orrela negarrez?*

Alabak.—*Zér dakargun?—Bai, zer dá,  
esan emen.—Deus ez.*

*—Bada zuben begiyak  
oso triste daudez,  
¿miñ-enbat aldezute?*

*—Bai alaſen gaudez.  
¡Ama euskara! Ni naiz  
alaba zarrena,*

*Nafarroa deitutzen  
dirate izena;  
gaitzak ni arrapatu  
ninduben aurrena,  
zeñaz daukadan oso  
tristea barrena.*

*—Ni naiz berriz bedorren*

---

(1) Fábulas señaladas con *premio extraordinario* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1890.

bigarren alaba,  
pontian jarriya det  
izena *Araba*;  
nere gorputza dago  
aiñ illun non gaba,  
ez daukat sosegurik  
non nai daukat traba.  
—Eta zuk, ¿zér dakartzu  
*Bizkaya* maitia?...  
—Lotsatu egiten naiz  
ama esatia...  
Nik ere daukat barren  
nerian katia,  
zeñak egiten diran  
gogorki kaltia.  
—Ni okerragoa naiz  
bedorren *Gipuzkoa*,  
burua daukat jo ta  
egiña bi puska;  
etsayak etorririk  
nigana muturka,  
egin dirate denen  
artian burruka.  
—Atozte onuntz, nere  
alaba gaišoak,  
zabaldurik emenchen  
daukazkit besoak;  
negarrez jartzen dira  
zuben gurasoak,  
etzautela ikusirik  
len beziñ osoak.  
—Eziñ mugiru gera  
gauden modu ontan,  
triste pasatzen degu  
eguna prankotan;  
gabaz berriz ez degu  
sosegurik lotan,  
nekiak auldu eta

geren lekuetan.  
¡A! Denboraren mudak  
ekartzen du miña,  
piñutzendu gorputza  
len zana ariña;  
—Amak senti du, zubek  
sendatu eziña,  
alaz guztiz egingo  
du, bai, alegiña.  
—Ama, ez bedi orrela  
gugatik estutu,  
obe luke bedorrekin  
au lenbait-len aztu.  
—¡Ez, alaba maitiak!  
arkitzen naiz estu,  
eta nai det albada  
zuben gaitza poztu.  
—Bañan *ȝerremedio*  
guretzat bearra,  
sendatzeko barrenan  
daukagun su garra,  
non billatuko degu?  
—Jaunaren indarra  
daukagu Zeruetan  
pozteko min charra.  
Erregu dezayogun  
belaunikaturik,  
biyotz biyotzez denak  
ondo elkarturik;  
ea modu ontara  
Jauna kupiterik,  
eratzen ote-digun  
erremediyorik.  
Eta uste bezela  
sendatzen badigu,  
len degun bañan geigo  
maitatuko degu;  
lege zar ikasiyak

gordeko ditugu,  
egiñaz biyotzetik  
Berari erregu.

**Uda-berriya.**

Uda-berriyak,  
bazter guziyak,  
ditu ederki lorez jazten:  
egun argiyak,  
zoragarriyak,  
era onetan dira asten;  
zelai aundiayak,  
intzak bustiyak,  
ederrak dira agertzen;  
or, marrubiyak,  
guri-guriyak,  
lurretik dira azaltzen;  
an, gereziyak  
gorri-gorriyak,  
arbolak ditu ematen;  
emen choriyak,  
audi, chikiyak,  
asi dirade kantatzen:  
ne kazariyak,  
guzti guztiyak  
pozez dira arkitutzen;  
gauza egokiyak,  
Uda berriyak,  
ditu, bai, mundura ekartzen.

JOSÉ ARTOLA ETA ELIZECHEA.

---